



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 7.zk. Maiatzak 2002
Serie Programa Marco Ambiental N° 7 Mayo 2002

Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia

BMG 2002



Necesidad Total de Materiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco




NTM 2002



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE
ORDENACION DEL TERRITORIO
Y MEDIO AMBIENTE



IHOBE
Ingurumen Iharduketarako Sozietate Publikoa
Sociedad Pública Gestión Ambiental

Ingurugiro Estrategiaren Agiria Saila

- **1.zk. Azaroak 2000.** "Ingurugiroan Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioak Egindako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa"
- **2.zk. Maiatzak 2001.** "2001 Ekobarometro Soziala"
- **3.zk. Urriak 2001.** "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: Laburpena"
- **4.zk. Urtarrilak 2002.** "Garapen jasangarriak Europako Batasunaren estrategia"
- **5.zk. Otsailak 2002.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa" (Laburpena)
- **6.zk. Apirilak 2002.** "Bizikletan, kerik gabeko hirietarantz"
- **7.zk. Maiatza 2002.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia. BMG 2002"

Serie Programa Marco Ambiental

- **Nº 1 Noviembre 2000.** "Impacto Económico del Gasto y la Inversión Medioambiental de la Administración Pública Vasca"
- **Nº 2 Mayo 2001.** "Ecobarómetro Social 2001"
- **Nº 3 Octubre 2001.** "Medio Ambiente en el País Vasco"
- **Nº 4 Enero 2002.** "Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible"
- **Nº 5 Febrero 2002.** "Inventario de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco" (Resumen)
- **Nº 6 Abril 2002.** "En bici, hacia ciudades sin malos humos"
- **Nº 7 Mayo 2002.** "Necesidad Total de Materiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. NTM 2002."

www.ingurumena.net

Argitaratzailea:

Ingurugiro Iharduketarako Sozietate Publikoa - IHOBE

Diseinua:

Inprimategia Berekintza

Itzulpena:

Elhuyar

© IHOBE 2002

Lege Gordailua:

BI-2421-01

% 100 paper birziklatuan inprimatua

Edita:

Sociedad Pública de Gestión Ambiental - IHOBE

Diseño:

Imprenta Berekintza

Traducción:

Elhuyar

© IHOBE 2002

Depósito Legal:

BI-2421-01

Impreso en papel reciclado 100 %

Euskal Autonomia
Erkidegoko **Beharrezko**
Material Guztia

BMG 2002



**Necesidad Total
de Materiales**

**de la Comunidad
Autónoma
del País Vasco**



NTM 2002

Aurkibidea

AURKEZPENA	7
ESKERRAK	8
1. SARRERA	9
2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA	13
3. INFORMAZIO-ITURRIAK	17
4. EMAITZEN AZTERKETA	19
4.1. BERTAKO BALIABIDEEN ERAUZKETA	
4.1.1. Bertako biomasaren eta biomasari lotutako fluxu ezkutuen erauzketa	
4.1.2. Bertako materia abiotikoaren eta materia horri lotutako fluxu ezkutuen erauzketa	
Meatzaritza eta gehiegizko karga edo gainkarga	
Hondeaketa	
Dragatze-lanak	
4.1.3. Bertako Beharrezko Material Guztia	
4.2. KANPOKO BALIABIDE-BEHARRAK	
4.2.1. Kanpoko zuzeneko input materiala	
4.2.2. Kanpoko zuzeneko input materialari lotutako fluxu ezkutuak	
4.2.3. Kanpoko Beharrezko Material Guztia	
4.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MATERIAL-BEHARRAK GUZTIRA	
4.3.1. Euskal Autonomia Erkidegoko zuzeneko input materiala	
4.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko fluxu ezkutuak	
4.3.3. Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia	
5. ONDORIOAK ETA BMG GUTXITZEKO EGIN BEHARREKOAK	51
5.1. ONDORIOAK	
5.2. BMG GUTXITZEKO EGIN BEHARREKOAK	
OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA	56
ERANSKINA: GLOSARIOA ETA LABURDURAK	

Índice

PRESENTACIÓN	7
AGRADECIMIENTOS	8
1. INTRODUCCIÓN	9
2. OBJETIVOS Y METODOLOGÍA	13
3. FUENTES DE INFORMACIÓN	17
4. ANÁLISIS DE RESULTADOS	19
4.1. EXTRACCIÓN DOMÉSTICA DE RECURSOS	
4.1.1. Extracción doméstica de biomasa y flujos ocultos asociados	
4.1.2. Extracción doméstica de materia abiótica y flujos ocultos asociados. Minería y sobrecarga Excavación Dragado	
4.1.3. Necesidad Total de Materiales domésticos	
4.2. REQUERIMIENTOS DE RECURSOS EXTERIORES	
4.2.1. Input material directo exterior	
4.2.2. Flujos ocultos asociados al input material directo exterior	
4.2.3. Necesidad Total de Materiales exteriores	
4.3. REQUERIMIENTOS MATERIALES TOTALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO	
4.3.1. Input material directo de la Comunidad Autónoma del País Vasco	
4.3.2. Flujos ocultos de la Comunidad Autónoma del País Vasco	
4.3.3. Necesidad Total de Materiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco	
5. CONCLUSIONES Y ACCIONES PARA DISMINUIR LA NTM	51
5.1. CONCLUSIONES	
5.2. ACCIONES PARA DISMINUIR LA NTM	
BIBLIOGRAFÍA BÁSICA	56
ANEXO: GLOSARIO Y ABREVIATURAS	



Aurkezpena

Presentación

Sabin Intxaurreaga

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen Sailburua
Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente

Datorren hamarkadari begira, Euskal Autonomia Erkidegoaren aukera onena giza baliabide gehiago eta natur baliabide gutxiago erabiliz ongizate handiagoa sortzea da. Hazkunde ekonomiko-a nahitaez bereizi egin beharko da baliabideen erabileratik eta poluziotik, garapena etorkizunean iraunarazteko modukoa izatea lortuko bada. Gauzak alda daitezke, eta aldatu egin behar dira, natur baliabide gutxiago erabiliz produkzioa handitzeko eta –sektore ekonomiko guztietan eta produktu eta zerbitzuen bizialdiaren ziklo osoan zehar– ingurumenaren gaineko eragina gutxitzeko.

Gure ekonomiaren bereizte-prozesu horretan egiten diren aurrerapenak aztertzeke asmoz, Ingurumeneko Esparru Programaren dokumentu berri hau sortu da. Programa horretan Euskal Autonomia Erkidegoak 1989 eta 1998 bitartean natur baliabidez egin duen erabileraren bilakaerari buruzko ikuspegi bat ematen da. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren produkzio-ereduak ingurumenaren egiten duen presioaren urtez urteko segimendua egiten lagunduko duten –eta, aldi berean, presioaren jatorria zehazten eta haren eragina arintzeko bultzatu beharreko ekintza zuzentzaileak bultzatzen– adierazle batzuk lantzen dira. Adierazle horietatik nagusia Beharrezko Material Guztia da, hau da, jarduera ekonomikoek naturatik erauzten duten materialen bolumen metatua (biztanle eta urte bakoitzeko, tonatan adierazia).

Ikerketa hau Euskal Herriko Unibertsitateko Ingurumen Ekonomiaren Unitateak egin du. Eusko Jaur-laritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Ekonomia Publikoko Institutuak elkarrekin bultzatutako ekimen bat da Ingurumen Ekonomiaren Unitatea, eta Euskal Herriko jarduera ekonomikoaren eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzea du helburu nagusia.

La principal oportunidad para la Comunidad Autónoma del País Vasco durante la próxima década será producir más bienestar usando más recursos humanos y menos recursos naturales. El desacoplamiento del crecimiento económico respecto del uso de los recursos y de la contaminación es absolutamente esencial para lograr un desarrollo sostenible. Puede y debe darse una transformación que reduzca el uso de los recursos naturales, incrementando su productividad, y de este modo genere menores impactos ambientales en todos los sectores económicos y a lo largo de todo el ciclo de vida de los productos y servicios.

Con el objetivo de analizar los avances en este proceso de desacoplamiento de nuestra economía se ha desarrollado este nuevo documento del Programa Marco Ambiental. En él se ofrece una visión de la evolución en la utilización de recursos naturales por parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre los años 1989 y 1998. También se desarrollan una serie de indicadores que permitirán realizar un seguimiento anual de las presiones sobre el medio ambiente que genera el modelo de producción vasco, así como determinar el origen de estas presiones y promover acciones correctoras para mitigarlas. El principal de estos indicadores es la Necesidad Total de Materiales, que comprende el volumen (medido en toneladas por habitante y año) acumulado de materiales que son extraídos de la naturaleza por las actividades económicas.

Este estudio ha sido realizado por la Unidad de Economía Ambiental de la Universidad del País Vasco. La Unidad de Economía Ambiental es una iniciativa conjunta de el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente Vasco y el Instituto de Economía Pública de la Universidad del País Vasco, cuyo objetivo prioritario es analizar las relaciones existentes entre la actividad económica vasca y el medio ambiente.

Eskerrak

Agradecimientos

Ingurumen Ekonomia Unitateko Iñaki Artok (Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Publikorako Institutua) IHOBE, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarentzat egindako dokumentua.

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailak berariaz eskerrak eman nahi dizkie honako pertsona hauei:

- Roberto Bermejo (EHU), Alexander Boto (IHOBE, S.A.), M^a Carmen Gallastegui (EHU) eta Javier Fernandezi (EHU), proiektuaren definizio kontzeptuala egiteagatik eta zuzendaritza teknikoko lanak egiteagatik.
- Ignacio Quintanari (IHOBE, S.A.), azken dokumenturako egindako iruzkinengatik.
- Javier Aguirre (Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila – Eusko Jaurlaritza), Esther Alvaro (EHUko liburutegia), Javier Aramburu (EUSTAT), Stefan Bringezu (Wuppertal Institutua), Sara Chamizo (Herri Lan eta Garraio Saila – Bizkaiko Foru Aldundia), Jose Miguel Edeso (EHU), Irune Elorriaga (Herri Lan eta Garraio Saila – Eusko Jaurlaritza), M^a Victoria Garcia (EUSTAT), Patxi Garrido (EUSTAT), M^a Isabel Inza (Garraio eta Errepide Saila – Gipuzkoako Foru Aldundia), Michael Kuhndt (Wuppertal Institutua), Charo Martinez (Europako Dokumentazio Zentroa – EHU), Pedro Ortega (Herri Lan eta Garraio Saila – Bizkaiko Foru Aldundia), Juan Luis Peña (Pasaiaiko portua), Roberto Perez de San Roman (IKT), Josune Redondo (IKT), M^a Lourdes Saenz de Castillo (EHUko liburutegia), Pilar Santa Maria (IKT), Lluís Selma (Aparejadoreen eta Arkitekto Teknikoan Bartzelonako), Helmut Schütz (Wuppertal Institutua), Jose Luis Vargas (Europako Dokumentazio Zentroa –EHU), Jesus Villanueva (Bilboko portua) eta Ramon de Zubiaurri (MENDIKOI, S.A.), horiei guztiei, eskerrik asko emandako aholkuengatik eta lan hau egiteko emandako dokumentazioarengatik.

Documento elaborado por Iñaki Arto de la Unidad de Economía Ambiental (Instituto de Economía Pública de la Universidad del País Vasco) para la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, S.A.

El Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco desea agradecer expresamente a las siguientes personas:

- Roberto Bermejo (UPV), Alexander Boto (IHOBE, S.A.), M^a Carmen Gallastegui (UPV) y Javier Fernández (UPV) por la definición conceptual del proyecto y por las labores de dirección técnica.
- Ignacio Quintana (IHOBE, S.A.) por los comentarios aportados al documento final.
- Javier Aguirre (Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente - Gobierno Vasco), Esther Álvaro (Biblioteca UPV), Javier Aramburu (EUSTAT), Stefan Bringezu (Instituto Wuppertal), Sara Chamizo (Departamento de Obras Públicas y Transporte - Diputación Foral de Bizkaia), José Miguel Edeso (UPV), Irune Elorriaga (Departamento de Transportes y Obras Públicas - Gobierno Vasco), M^a Victoria García (EUSTAT), Patxi Garrido (EUSTAT), M^a Isabel Inza (Departamento de Transportes y Carreteras - Diputación Foral de Guipuzkoa), Michael Kuhndt (Instituto Wuppertal), Charo Martínez (Centro de Documentación Europea UPV), Pedro Ortega (Departamento de Obras Públicas y Transporte - Diputación Foral de Bizkaia), Juan Luis Peña (Puerto de Pasajes), Roberto Pérez de San Román (IKT), Josune Redondo (IKT), M^a Lourdes Sáenz de Castillo (Biblioteca UPV), Pilar Santa María (IKT), Lluís Selma (Colegio de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Barcelona), Helmut Schütz (Instituto Wuppertal), José Luis Vargas (Centro de Documentación Europea UPV), Jesús Villanueva (Puerto de Bilbao), Ramón de Zubiaur (MENDIKOI, S.A.). A todos ellos gracias por sus consejos y por la documentación facilitada para la elaboración de este trabajo.

Introducción

Euskal Autonomia Erkidegoko 2002-2020 Ingurumeneko Esparru Programa honetan, iraunkortasunaren helburuari eta ekonomia eta ingurumena integratzeko strategiari dagokionez, kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenetako bat natur baliabideen kontsumoa kalkulatzeko eta kontsumoak zer eragin duen ingurumenean jakitea da. **Material Fluxuen Azterketak** natur baliabideen fluxu fisikoen ikuspegi sistematiko bat emateko balio du, natur baliabideak erazten diren unetik ezabatzen direneraino, tartean dauden produkzio-prozesuak, erabilera eta birziklatzea kontuan harturik, eta bidean gertatzen diren galerak ahaztu gabe. **Natur baliabideen kontsumoa, batetik, eta ingurumenak materialak eskaintzeko eta hondakinak beretzeko duen gaitasuna, bestetik, elkarrekin lotzeko nahian oinarritzen da teknika hori.**

Ekonomia industrialen oinarri fisikoaren ikuspegi global bat emateko eta iraunkortasunaren adierazle batzuk eskaintzeko erabiltzen da metodo hau. **Ekonomia-jarduerei eutsi ahal izateko ingurumenetik ateratako natur baliabide guztiak (material prozesatuak eta/edo lekuz aldatuak) zenbatzea da helburua.**

Nekazaritzak, basogintzak, arrantzak, meatzaritzak eta gas –eta petrolio– hobietan erazutako lehengaiak sartzen dira ekonomian. Industriak lehengai horiek prozesatu eta eraldatu egiten ditu, ondasunak eta zerbitzuak eskaintzeko gero. Prozesu horren bitartez, materialak kontsumitzaileengana iristen dira, eta kontsumitzaileen bitartez, haien azken xedera: birziklatzera eta berrerabiltzera, edota hondakin gisa zabortegira botatzera edo ingurumenean barreiatzera.

Lehen mailako natur baliabideak erazutak edo biltzeak material-kantitate handiak lekuz aldatzea edo prozesatzea eskatzen du sarritan, eta horrek ingurumena hondatzea edo aldatzea eragin dezake. Adibidez, meategi batean, mea dagoen lekuraino

Dentro del Programa Marco Ambiental del País Vasco 2002-2020 y en relación con el objetivo de sostenibilidad y la estrategia de integración economía - medio ambiente, uno de los aspectos claves es el cálculo del consumo de recursos naturales y la identificación de su impacto ambiental. El **Análisis de Flujo de Materiales (AFM)** sirve para dar una visión sistemática de los flujos físicos de recursos naturales desde su extracción hasta su eliminación final, pasando por los procesos de producción, uso y reciclaje, y teniendo en cuenta las pérdidas a lo largo del camino. Esta técnica tiene su base en el deseo de **relacionar el consumo de recursos naturales con la capacidad del medio ambiente para proporcionar materiales y absorber residuos.**

Este método se utiliza para dar una visión global del fundamento físico de las economías industriales y proporcionar una serie de indicadores de sostenibilidad. **Se trata de contabilizar todos los recursos naturales extraídos del medio ambiente (materiales procesados y/o desplazados) para sustentar las diversas actividades económicas.**

En la economía entran materias primas extraídas por la agricultura, la selvicultura, la pesca, la minería y los pozos de gas y petróleo. La industria procesa estas materias primas y las transforma para producir bienes y servicios. Mediante este proceso se trasladan los materiales hasta los consumidores y así llegan a su destino final: el reciclaje y la reutilización, la deposición como residuo en vertedero o la dispersión en el medio ambiente.

Extraer o cosechar recursos naturales primarios a menudo requiere desplazar o procesar cantidades considerables de materiales, lo cual puede modificar o dañar el medio ambiente. Por ejemplo, para acceder a yacimientos minerales muchas veces hay que desplazar enormes cantidades de materiales. Luego, una vez extraídos los minerales, hay que separar la

iristeko, material-kantitate izugarriak atera behar izaten dira, eta beste leku batera eraman. Minerala erauztean, mea bera, batetik, eta hondakina, bestetik, bereizi behar dira, eta mea kontzentratu behar izaten da gero, prozesatu ahal izateko. Zeregin horietan hondakin asko sortzen da. Laborantzako lanek ere lurra higarazten dute, agerian eta gertakari atmosferikoen mende uzten dute lur landua. Eraikinak eta azpiegiturak eraikitzeke material-kantitate handiak erauzi behar izaten dira. Material-mugimendu edo fluxu horiek guztiak herrialde bateko ekonomia-jardueren parte dira, baina nekez sartzen dira ekonomian ondasun gisa. Materialen fluxuaren ikuspegitik begiratuta, ekonomian zuzenean sartzen diren materialak **-Zuzeneko Input Materialak (ZIM)-** eta sartzen ez direnak bereziko dira. Azkeneko horiek erauzitako lehen mailako natur baliabideei lotutako **Fluxu Ezkutu (FE)** gisa deskribatuko dira. Fluxu ezkutu horiek ingurumenean egiten duten presioa, eta industria-sisteman zuzenean sartu eta ondasun eta zerbitzu bihurtzen diren materialek egiten dutena ez dira berdinak. Uranioa ateratzeko prozesuan erauzitako tona bat lur eta uranio tona bat ez dira gauza bera. Baina natur baliabideak erabiltzeak, edozein erabilera-motak, errotik alda dezake ingurumena.

Materialen fluxuak aztertuz ez dago alde zuretik jakiterik zein fluxu izango diren ingurumenarentzat kaltegarri eta zein ez. Fluxuen kaltegarritasun-maila begiralearen ikuspegiaren arabera izango da, eta tokian tokiko ingurumenaren ezaugarrien arabera ere bai. Fluxuen azterketak material-fluxuen alderdi kuantitatiboan jartzen du arreta, material horien alderdi kualitatiboak kontuan hartu gabe, nahiz eta, kalte egiteko ahalmenari dagokionez, nabarmena izan batzuen eta besteen artean dagoen aldea. Hala ere, **metodologia honek eskaintzen dituen magnitudeek, behar bezala neurtuz gero, ekonomia-jarduerak ingurumenean zer nolako kaltea (kualitatiboki betiere) eragiten duen erakuts dezakete.** Adibidez, ekonomia bateko petrolioaren fluxutik abiatuak, jarduera horrek euri azidoan edo berotegi-efektuan eraginik ba ote duen jakin daiteke.

Merkatuak ez du fluxu ezkutuentzat preziorik ezartzen, eta horregatik ez dira kontabilitate ekonomikoan jasotzen. Beraz, estatistikek gutxietsi egiten dute ekonomia industrial baten natur baliabideekiko mendekotasuna, eta eskala fisikoaren eta beren erabaki ekonomikoen irudi distorsionatu bat eskaintzen diete plangintza-egileei.

Eskaintako produktu edo zerbitzu jakin baterako, lehen mailako natur baliabideak eta haiek produzitzeko haiei lotutako fluxu ezkutuak dira produktu edo zerbitzuari lotutako beharrezko material guztiak. Material-kantitate hori, bestalde, produktu edo zer-

mena de la ganga y concentrarlos para su procesamiento obteniendo grandes cantidades de residuos. Ciertas actividades agrícolas favorecen la erosión debido a que aumentan la exposición del suelo cultivado a los fenómenos atmosféricos. La construcción de edificios e infraestructuras requiere la excavación de grandes cantidades de materiales. Todos estos flujos son parte de la actividad económica de un país, pero casi nunca entran en la economía como bienes propiamente dichos. Desde la óptica del flujo de materiales van a ser considerados, de forma separada, tanto los materiales que entran directamente en la economía o **Inputs Materiales Directos (IMD)** como aquellos que no lo hacen. Estos últimos se describen como **Flujos Ocultos (FO)** asociados a los recursos naturales primarios extraídos. La presión sobre el medio ambiente ejercida por estos flujos ocultos es normalmente diferente a la ejercida por los materiales que entran directamente en el sistema industrial y son transformados en bienes y servicios. Una tonelada de tierra excavada en la extracción de uranio no es lo mismo que una tonelada de mineral de uranio. Pero todos los usos de recursos naturales causan potencialmente importantes alteraciones en el medio ambiente.

Mediante el análisis de flujos de materiales no es posible reconocer a priori qué flujos van a ser perjudiciales para el medio ambiente. El grado de nocividad de los flujos dependerá tanto de la perspectiva del observador como de las características del medio ambiente local. El análisis de flujos se centra sólo en el estudio del aspecto cuantitativo de los flujos de materiales sin tener en cuenta los aspectos cualitativos de éstos, aunque las diferencias entre sus potenciales nocivos sean evidentes. A pesar de esto, **esta metodología proporciona una serie de magnitudes que, debidamente ponderadas, pueden ofrecer una visión del impacto ambiental (en términos cualitativos) de la actividad económica.** Por ejemplo, partiendo del flujo de petróleo de una economía se puede estimar su contribución a la lluvia ácida o al efecto invernadero.

Debido a que el mercado no establece un precio para los flujos ocultos, la contabilidad económica no suele recogerlos. Las estadísticas resultantes subestiman la dependencia de los recursos naturales de una economía industrial, proporcionando a los planificadores una imagen distorsionada de la escala física y de las consecuencias de sus decisiones económicas.

Para un producto o servicio dado, los recursos naturales primarios y los flujos ocultos asociados necesarios para su producción constituyen las necesidades materiales totales asociadas con el producto o servicio. Esta cantidad es también una medida de las presiones ambientales potenciales atribuibles a dicho

bitzu horri egotz dakizkiokeen ingurumen-presioen neurri bat ere bada. Era berean, ekonomia bati lotutako fluxu material guztiak kalkula daitezke. Ekonomia bateko ondasunak eta zerbitzuak sortzeko erabili beharreko natur baliabideen kantitate osoa adierazten dute fluxu horiek.


Beste ekonomia batzuetatik iristen diren materialek aipamen berezia merezi dute. Gaur egun, ekonomia globalaren testuinguruan sartuta gauden neurrian, materialak herrialde batean sortu eta beste batean prozesa daitezke, beste batean eraldatu eta laugarren batean kontsumitu. Horrek are garrantzi handiagoa du ekonomia zabalaren material-fluxuak aztertzen direnean, euskal ekonomiaren fluxuak aztertzean, esate baterako. Berez, esportatutako materialei lotutako fluxu ezkutua herrialde esportatzaileei egokitu lezikieke, herrialde bakoitza bere esportazioek ingurumenean eragiten dituzten kalteez arduratu behar ko litzatekeela argudiatuz. Ikuspegi horrek, baina, ez ditu aintzat hartzen ekonomia industrialen (lehen-gai-kopuru handien inportatzaileak) eta garatze-bidean dauden ekonomien arteko asimetria handiak. Izan ere, garatze-bidean dauden herrialdeetako ekonomietako asko baliabide horien esportazioan oinarritzen dira, eta, beraz, baliabideak erauzteak ingurumenean eragiten duen kaltearen kostuak pairatzen dituzte. Ikuspegi horrek, gainera, ez du aintzat hartzen ez egungo ekonomia industrial gehienaren oinarri fisikoa, ez, ingurumenari lotutako perspektiba orokor batetik begiratuta, ekonomia horietan baliabideak eraginkortasun handiagoarekin erabiltzeko beharra. Material-fluxuen azterketan inportazioei lotutako fluxu ezkutuen batezbesteko bat txertatu da.

producto o servicio. De la misma forma, se pueden calcular los flujos materiales totales asociados a una economía. Estos flujos representan el uso total de recursos naturales necesario para generar los bienes y servicios de una economía.

Los materiales procedentes de otras economías requieren una mención aparte. En el actual contexto de economía global, los materiales pueden originarse en un país, ser procesados en otro, transformados en productos finales en un tercer país y finalmente consumidos en un cuarto país. Este hecho cobra mayor relevancia cuando se analizan los flujos materiales de una economía muy abierta, como es el caso de la economía vasca. En principio, los flujos ocultos asociados con los materiales exportados podrían ser asignados al país exportador, alegando que cada país debería ser responsable de los daños ambientales que se derivan de sus exportaciones. En la práctica, sin embargo, este enfoque ignora las grandes asimetrías existentes entre las economías industriales (las cuales importan grandes cantidades de materias primas) y las economías en vías de desarrollo, muchas de las cuales dependen en gran medida de la exportación de estos recursos y, por tanto, sufren los costes ambientales de la extracción de los recursos. Además, también pasaría por alto la actual base física de la mayoría de las economías industriales y la importancia, desde una perspectiva medioambiental global, de una utilización de los recursos más eficiente en estas economías. En el análisis de flujos materiales, se incluye una estimación de los flujos ocultos asociados a las importaciones.

1. irudia: Material Fluxuen Azterketa

Figura 1: Análisis de Flujo de Materiales



Ekonomia batek dituen behar fisiko guztiei (bertako materialen, inportatutako materialen eta haiei lotutako fluxu ezkutuen batura, ura eta airea salbu) Beharrezko Material Guztia (BMG) esaten zaio (1. irudia). Zenbateko hori ekonomia bati eusten dioten fluxu fisikoen neurri bat da, edota ekonomia-jardueraren zenbatekoa termino fisikotan neurtua. Beharrezko Material Guztiak nazio bateko ekonomia-jardueraren beste diru-neurri batzuk osatzen ditu, Barne Produktu Gordina (BPG), esate baterako. Elkar harturik, neurri fisikoak eta diru-neurriak ekonomia industrial baten tamainaren eta irispidearen ikuspegi osoagoa eskaintzen dute. Beharrezko material guztia ekonomia batek ingurumenean izan lezakeen eraginaren gutxi gorabeherako neurritzat ere har daiteke. Hala ere, neurri zehatzagoak BMGren osagaien agregazio-mailaren eta osagai horiek ingurumenean izan dezaketen eraginaren araberrakoak izango dira. Herrialde batzuen eta besteen datuak elkarrekin errazago alderatu ahal izateko, material-fluxuaren kontabilitatea biztanle bakoitzari dagokionaren arabera aurkeztuko da (BMG biztanle bakoitzeko). Halaber, beste hau ere kalkulatzeko: da natur baliabideetatik ateratako lehengaien erabilera –zuzeneko input materiala biztanle bakoitzeko–, bertako fluxu ezkutuetak eta inportatutakoak kenduta Beharrezko Material Guztiari.

Epe labur eta erdira ez da aldaketarik espero eskari zuzenaren murrizketa azkar baterako eta ekonomia-aren desmaterializazio baterako aukerak sor litzaketen kontsumo- eta produkzio-ereduetan. Beste alternatiba batzuk aztertu behar dira lehengai-fluxuak murriztuko badira. Alternatiba garrantzitsuenetako bat BMGk berak eskaintzen du, materialetan oso intentsiboak diren prozesu ekonomikoak identifikatzeko aukera eskaintzen baitu. Prozesu horietan, zeharkako inputak –hau da, ekonomiak baliatzen ez dituen eta ingurumena kaltetzen duten fluxu ezkutuetak– murrizteko aukerarik ba ote dagoen aztertu beharko litzateke.

A las necesidades físicas totales de una economía (la suma de los materiales domésticos e importados –excepto agua y aire– junto con sus flujos ocultos asociados) se le denomina Necesidad Total de Materiales (NTM) (Figura 1). Este número es una medida de los flujos físicos, o la magnitud de la actividad económica medida en términos físicos, que sustentan una economía. La Necesidad Total de Materiales complementa a otras medidas monetarias de la actividad económica de una nación como el PIB. Juntas, las medidas físicas y monetarias proporcionan una visión más completa del tamaño y alcance de una economía industrial. La NTM también puede ser considerada como una medida aproximada de la presión potencial ejercida por una economía sobre el medio ambiente global, aunque medidas más precisas dependerán del nivel de agregación de los componentes de la NTM y del impacto ambiental de éstos. Con objeto de realizar comparaciones entre países, la contabilidad de flujo de materiales se presenta en términos per cápita, NTM per cápita. También se calcula el uso de materias primas proveniente de los recursos naturales, el input material directo per cápita; esta cantidad es la NTM menos los flujos ocultos domésticos e importados.

A corto y medio plazo no se puede esperar un cambio en los modelos de consumo y producción que genere oportunidades para una rápida reducción en la demanda directa y una desmaterialización de la economía. Es necesario analizar otras posibles alternativas para reducir los flujos de materias primas. Una de las alternativas más importantes la proporcióna la NTM, pues permite identificar los procesos económicos altamente intensivos en material. Es en estos procesos en los que se deberían explorar las posibilidades de aplicar soluciones que reduzcan los inputs indirectos, esto es los flujos ocultos que no usa la economía y que dañan el medio ambiente.



2

Helburuak eta Metodologia

Objetivos y Metodología

Azterketa honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren 1989-1998 bitarteko ekonomiaren oinarri fisikoaren bilakaerari buruzko ikuspegia emango duten adierazle batzuk eskaintzea da. Ekonomiaren desmaterializazioa, batetik, eta ekonomiaren eta ingurumenaren arteko bereizketa, bestetik, neurtzeko eta aztertzeko aukera eskaintzen duten adierazleak dira.


Kalkulatu beharreko adierazle nagusia Beharrezko Material Guztia (BMG) da. Wuppertal Institutuak asmatutako makroadierazle hori ekonomia bateko produkzio-prozesuetan zuzenean sartzen den baliabide-kantitate osoa (zuzeneko input materiala), batetik, eta produkzio horri lotutako zeharkako flu-

El objetivo principal de este estudio es proporcionar una serie de indicadores que den una visión de la evolución de la base física de la economía de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el período 1989-1998. Son un conjunto de indicadores que permiten analizar el grado de desmaterialización de la economía y el nivel de desacoplamiento entre economía y medio ambiente en el tiempo.

El principal indicador a calcular es la Necesidad Total de Materiales (NTM). Es un macro-indicador desarrollado por el Instituto Wuppertal para describir, en términos de masa total, no sólo la cantidad de recursos totales que entran directamente en los procesos de producción de una economía (input material directo),

2. irudia: Beharrezko Material Guztiaren osagiak

Figura 2: Componentes de la Necesidad Total de Materiales



xuak (fluxu ezkuak), bestetik, deskribatzeko asmatu da. Deskribapen horretan bai bertako materialen fluxuak bai kanpotik iristen direnak hartuko dira kontuan. BMGren bertako osagaiak eta kanpoko osagaiak lortuko ditugu horrela, eta osagai horiek gure jarduera ekonomikoak ingurumenean eragiten dituen presioen kokapen geografikoaren neurri bat emango digute, gure ekonomiaren baliabideekiko mendekotasun-maila ere adierazteaz gainera.

Bertako Beharrezko material guztia bertako zuzeneko input materialak eta bertako ezkutuko fluxuak osatzen dute. Zuzeneko Input Materialak (ZIM) bertako lehengaien erauzketa jasotzen du, bai jatorri biotikoa duten lehengaiena (nekazaritza, basogintza, basoko beste produktu batzuk, erlezaintza, ehiza, ibaiko arrantza, itsasoko arrantza) bai jatorri abiotikoa dutenena (meatzaritza eta hondeaketatik ateratako materialak, eraikuntzan erabiltzen direnak). Abeltzaintza, baina, ez da bertako ZIMren barruan sartzen, kontuan hartuko balitz baliabideak bi aldiz zenbatzen ariko baikinake (nekazaritza eta basoko beste produktu batzuk izendatutako sailetan abeltzaintzarako elikagaien lehen mailako produkzioa eta bazkatutako biomasa zenbatzen dira; gainera, kanpoko ZIMean abeltzaintzarako inportatutako elikagaiak jasotzen dira, besteak beste; beraz, abereen biomasa ez da kontuan izan behar, zenbatuta baitaude haiek mantentzeko behar diren inputak). Bertako fluxu ezkuak bertako ZIMen erauzketa lekualdatu eta ekonomiatik kanpo geratzen diren materialak dira (nekazaritzak eragindako higadura, itsas arrantzan arbuatutako arrainak, meatzaritzako gainkargaren lekualdaketa, azpiegiturak eta eraikinak eraikitzeko hondeaketa-lanetan baztertutako materialak, eta dragatze-lanak).

Kanpoko BMG, bestalde, bi sailetan bana daiteke: kanpoko ZIM, batetik, eta kanpoko fluxu ezkuak, bestetik. Kanpoko ZIM Euskal Autonomia Erkidego munduko beste herrialde batzuetatik eta Espainiako estatuko beste leku batzuetatik ekartzen dituen inportazioez osatua dago. Hona Euskal Autonomia Erkidego inportatzen dituen gaiak: lehengaiak, erdi-landuak eta jatorri biotikoa edo abiotikoa duten hainbat eta hainbat produktu. Inportazioei lotutako fluxu ezkuak, berriz, inportatutako gaia lortzeko beste eskualde batzuetan lekualdatutako materialak dira.

Beraz, bertako eta kanpoko ZIMek, bertako eta kanpoko fluxu ezkutuekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko material guztia osatzen dute:

sino también los flujos indirectos (flujos ocultos) asociados a dicha producción. Se van a tener en cuenta tanto los flujos de materiales domésticos como los provenientes del exterior. Así obtendremos los componentes doméstico y exterior de la NTM, que nos dan una medida de la localización geográfica de las presiones ejercidas sobre el medio ambiente por nuestra actividad económica (Figura 2). También nos indican el grado de dependencia, en materia de recursos, de nuestra economía.

La NTM domésticos está compuesta por el input material directo doméstico y los flujos ocultos domésticos. El Input Material Directo (IMD) doméstico recoge la extracción doméstica de materias primas de origen biótico (agricultura, selvicultura, otros productos forestales, apicultura, caza, pesca fluvial, pesca marítima) y abiótico (minería y materiales procedentes de la excavación utilizados en la construcción). Dentro del IMD doméstico no se tiene en cuenta la ganadería puesto que si lo hiciésemos estaríamos ante un caso de doble contabilización de los recursos (en las categorías agricultura y otros productos forestales se contabilizan la producción primaria de alimentos para ganado y la biomasa pastada; además, en el IMD exterior se recogen entre otras las importaciones de alimentos para ganado; por tanto, no hay que tener en cuenta la biomasa pecuaria pues ya se han contabilizado los inputs necesarios para el mantenimiento de ésta). Los flujos ocultos domésticos son los materiales desplazados como consecuencia de la extracción del IMD doméstico que no entran en la economía (erosión debida a la agricultura, descartes en la pesca marítima, desplazamientos de la sobrecarga en minería, materiales sobrantes en la excavación para la construcción de infraestructuras y edificios, y operaciones de dragado).

La NTM exteriores se divide a su vez en IMD exterior y flujos ocultos exteriores. El IMD exterior está compuesto por las importaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco con origen en el resto del mundo y en el resto del estado. Estas importaciones son materias primas, semimanufacturas y productos de origen tanto biótico como abiótico. En cuanto a los flujos ocultos asociados a las importaciones, son el conjunto de materiales desplazados en otras regiones para obtener la materia que importamos.

Por tanto, la NTM exteriores de la Comunidad Autónoma del País Vasco está compuesta por el IMD doméstico y exterior junto con los flujos ocultos domésticos y exteriores:



$$BMG = ZIM + FE = \underbrace{ZIM^{bertakoa} + FE^{bertakoa}}_{BMG^{bertakoa}} + \underbrace{ZIM^{kanpoko} + FE^{kanpoko}}_{BMG^{kanpoko}}$$

$$NTM = IMD + FO = \underbrace{IMD^{\text{doméstico}} + FO^{\text{doméstico}}}_{NTM^{\text{domésticos}}} + \underbrace{IMD^{\text{exterior}} + FO^{\text{exterior}}}_{NTM^{\text{exteriores}}}$$

Beharrezko material guztia osatzen duten osagaietatik abiatuz, aldagai fisikoak (ZIM, fluxu ezkutuak eta BMG), aldagai ekonomikoak (BPG) eta aldagai sozialak (biztanleria) erlazionatzen dituzten adierazle batzuk lor daitezke (3. irudia).

Partiendo de los distintos componentes de la NTM se pueden obtener una serie de indicadores (Figura 3) que relacionan variables físicas (IMD, flujos ocultos y NTM) con variables económicas (PIB) y sociales (población).

3. irudia: Adierazle nagusiak
Figura 3: Principales indicadores



Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko material guztia kalkulatzeko, Europako Ingurumenaren Agentziak 55. eta 56. zenbakiko txosten teknikoetan –“Total Material Requirement of the European Union” eta “Total Material Requirement of the European Union: Technical Part”, hurrenez hurren– zehaztutako metodologia erabili da. Nolanahi ere, metodologia hori Euskal Autonomia Erkidegoaren ezaugarri berezietara egokitu behar izan da. Hauek dira aldagata nagusiak:

- Koefiziente espezifiko batzuk erabili dira nekazaritzak eragindako **higadura** kalkulatzeko.
- Metodo berri bat erabili da azpiegiturak eta eraikinak eraikitzean egindako **hondeaketa** kalkulatzeko.
- **Espainiako estatuko beste leku batzuetatik ekarritako inportazioen batezbestekoa** kalkulatu da.

Aldaketa metodologiko horiek, azterketa nolabait zaildu arren, emaitzen fidagarritasuna handitu dute, eta horri esker, adierazleak euskal ekonomiaren errealitatetik hurbilago daudela esan daiteke.

Para el cálculo de la NTM de la Comunidad Autónoma del País Vasco se ha seguido la metodología establecida por la Agencia Europea del Medio Ambiente en los informes técnicos n.º 55: “Total Material Requirement of the European Union” y n.º 56: “Total Material Requirement of the European Union: Technical Part”. Sin embargo, esta metodología ha tenido que ser adaptada a las características singulares de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las principales modificaciones introducidas son:

- Utilización de coeficientes específicos en el cálculo de la **erosión** debida a la agricultura.
- Introducción de un nuevo método para el cálculo de la **excavación** debida a la construcción de infraestructuras y edificios.
- Estimación de las **importaciones procedentes del resto del estado**.

Estos cambios metodológicos, a pesar de complicar en cierta manera el estudio, aportan mejoras significativas en la verosimilitud de los resultados. Mejoras que se traducen en un mayor acercamiento de los indicadores a la realidad de la economía vasca.

3

Informazio-Iturriak

Fuentes de Información

Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko material guztia kalkulatzeko behar ziren datuak lortzeko prozesua oso prozesu neketsua izan da, informazioa oso sakabanatuta zegoen eta. Gainera, zenbait kasutan, informazio hori ez-ohiko pisu-unitatean edo bolumenean adierazita zegoen, eta datuak itzuli behar izan dira informazioa prozesatu baino lehen. Beste kasu batzuetan, daturik ezean, egileak berak egin ditu kalkuluak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko material guztia kalkulatzeko erabili behar diren informazio-iturri nagusiak 1. taulan azaltzen dira, sektore- eta fluxu-moten arabera sailkatuta.

El proceso de obtención de datos para el cálculo de la Necesidad Total de Materiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco ha sido laborioso debido a la dispersión de la información. Además, en algunos casos, esta información venía expresada en unidades de peso no convencionales o en volumen y se han tenido que utilizar factores de conversión antes de procesar la información. En otros casos, como consecuencia de la ausencia de datos, hubo que recurrir a estimaciones propias.

Las principales fuentes de información para el cálculo de la NTM vasca, según sector y tipo de flujo, vienen recogidas en la tabla 1.

1. taula: BMG kalkulatzeko informazio-iturri nagusiak

Tabla 1: Principales fuentes de información para el cálculo del NTM

BERTAKO SEKTOREA / SECTOR DOMÉSTICO	
Zuzeneko Input Materiala / Input Material Directo	Iturria / Fuente
<i>Nekazaritza / Agricultura</i>	Nekazal Ikerketa eta Teknologia S.A. (IKT) Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación (MAPA)
<i>Erlezaintza / Apicultura</i>	IKT, MAPA
<i>Basogintza / Selvicultura</i>	IKT, MAPA
<i>Ehiza / Caza</i>	IKT, MAPA
<i>Ibaiko arrantza / Pesca fluvial</i>	IKT, MAPA
<i>Itsasoko arrantza / Pesca marítima</i>	IKT
<i>Meatzaritza / Minería</i>	Instituto Geológico y Minero Español (IGME)
<i>Erabilitako hondeaketa / Excavación usada</i>	<i>Egilea bera / Estimación propia</i>

BERTAKO SEKTOREA / SECTOR DOMÉSTICO

<i>Fluxu ezkutuak / Flujos ocultos</i>	<i>Iturria / Fuente</i>
<i>Higadura / Erosión</i>	<i>Egilea bera / Estimación propia</i>
<i>Arbuiatutako arraina / Descartes de la pesca</i>	<i>Greenpeace / Greenpeace</i>
<i>Meatzaritzako gainkarga / Sobrecarga en minería</i>	<i>Wuppertal Institutua / Instituto Wuppertal</i>
<i>Erabili gabeko hondeaketa / Excavación no usada</i>	<i>Egilea bera / Estimación propia</i>
<i>Dragatua / Dragado</i>	<i>Pasaiako eta Bilboko portuetako Portu Agintaritzak Autoridades Portuarias de los puertos de Pasajes y Bilbao</i>

KANPOKO SEKTOREA / SECTOR EXTERIOR

<i>Zuzeneko Input Materiala / Input Material Directo</i>	<i>Iturria / Fuente</i>
<i>Munduko beste herrialde batzuetatik ekarritako inportazioak (MB) Importaciones del Resto del Mundo (RM)</i>	<i>Instituto de Comercio Exterior (ICEX) Estatistikaren Euskal Institutua (EUSTAT) Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT)</i>
<i>Estatuko beste leku batzuetatik ekarritako inportazioak (EB) Importaciones del Resto del Estado (RE)</i>	<i>Egilea bera Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Estimación propia Ente Vasco de la Energía (EVE)</i>
<i>Fluxu ezkutuak / Flujos ocultos</i>	<i>Iturria / Fuente</i>
<i>MB inportazioei lotutako fluxu ezkutuak Flujos ocultos de las importaciones del RM</i>	<i>Wuppertal Institutua Instituto Wuppertal</i>
<i>EB inportazioei lotutako fluxu ezkutuak Flujos ocultos de las importaciones del RE</i>	<i>Wuppertal Institutua Instituto Wuppertal</i>



Análisis de resultados

O rain, azterketa honetan lortutako emaitzak azaltzen dira. Lehenengo eta behin, BMGren bertako osagaiak aurkezten dira; hau da, bertako BMG osatzen duten ZIM eta bertako fluxu ezku-tuak. Gero, kanpoko sektorerako lortu diren emaitzak aurkezten dira (ZIM, fluxu ezku-tuak eta kanpoko BMG). Behin BMGren bertako eta kanpoko osagaien berri jakin ondoren, ZIM, fluxu ezku-tuak eta BMG osoak kalkulatu ahal izango dira.

4.1. BERTAKO BALIABIDEEN ERAUZKETA

Euskal Autonomia Erkidegoan bertako lehengaiak eskuratzeko egiten den erauzketa oro, bai eta lekual-datutako materia oro ere –nahiz eta materia hori input gisa sartu ez ekonomian– bertako baliabideen erauzketa gisa zenbatzen da. Bertako IMD eta bertako ezkutuko fluxuak izenekoak dira, eta biek bertako BMG osatzen dute.

4.1.1. Bertako biomasaren eta biomasari lotutako fluxu ezkutuen erauzketa

1998. urtean 4,21 Mt material biotiko erauzi zen Euskal Autonomia Erkidegoan. Urte hartan, ekonomian zuzenean sartutako bertako biomas-fluxu handiena nekazaritzako baliabideen erauzketena zen: laboreak, lekadunak, gizakiaren kontsumorako tuberkuluak, industrian erabiltzen diren landareak, zuhain-landareak (bildutakoak zein bazkatuak), barazkiak, fruta freskoak, fruitu lehorrak, mahastiak, olibondoak eta beste landare zurezko batzuk. 1998an kategoria horiek erauzitako bertako biomas osoaren % 36,88 (1,55 Mt) osatu zuten.

A continuación se presentan los resultados obtenidos en este estudio. En primer lugar se analizan los componentes domésticos de la NTM, es decir el IMD y los flujos ocultos domésticos que forman la NTM domésticos. Posteriormente se presentan los resultados obtenidos para el sector exterior (IMD, flujos ocultos y NTM exteriores). Una vez obtenidos los componentes domésticos y exteriores de la NTM se procede a analizar el IMD, los flujos ocultos y la NTM totales.

4.1. EXTRACCIÓN DOMÉSTICA DE RECURSOS


La extracción doméstica de recursos comprende toda apropiación directa de materias primas dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, junto con la materia desplazada y que no entra dentro de la economía como un input propiamente dicho. Son los llamados IMD doméstico y flujos ocultos domésticos, que juntos forman la NTM domésticos.

4.1.1. Extracción doméstica de biomasa y flujos ocultos asociados

En el año 1998 se extrajeron en la Comunidad Autónoma del País Vasco 4,21 Mt de materiales bióticos. En ese mismo año, el mayor flujo doméstico de biomasa que entró directamente en la economía lo constituía la extracción de recursos agrícolas. Ésta comprende la producción de cereales, leguminosas, tubérculos para consumo humano, cultivos industriales, cultivos forrajeros (cosechados y pastados), hortalizas, frutas frescas, frutos secos, viñedo, olivar y otros cultivos leñosos. En 1998 estas categorías supusieron el 36,88% (1,55 Mt) del total de biomasa doméstica extraída.

4. irudia: Bertako ZIM biotikoa

Figura 4: IMD doméstico biótico



Bigarren biomasa-sarrera nagusia basoko produktuen erazketarena izan zen. Basogintzak (zura eta egurra) bertako materia biotiko guztiaren % 35,61 (1,50 Mt) osatu zuen; Basoko Beste Produktu Batzuek (BBPB) –uzta eta berezko belardietako larrea batez ere–, berriz, % 25,97 (1,09 Mt) osatu zuten.

Bukatzeko, itsasoko arrantza (% 1,53), erlezaintza (% 0,007), ehiza (% 0,004) eta ibaiko arrantza (% 0,001) dira bertako biomasaren erazketaren gainetarako osagaiak.

Bertako ZIM biotikoaren 1985-1998 bitarteko bilakera aztertuz gero (4. irudia), datu aipagarri bat nabarmentzen da, 1991. urtetik aurrera egon den etengabeko hazkuntza, baso-produkzioaren (basogintza eta basoko beste produktu batzuk) gorakadaren ondorioz. 1985 eta 1998. urteetako datuak elkarrekin alderatuz gero, gorakada handia nabari da basoko beste produktu batzuen eta basogintzaren sailetan (% 104,24 eta % 53,08, hurrenez hurren). Aipagarria da, halaber, nekazaritza produkzioaren beherakada, % 13,95koa. Oro har, 1985 eta 1998 bitartean, bertako ZIM biotikoa % 24,99 (0,84 Mt) handitu zen.

Materia biotikoaren bertako erazketaren bigarren osagaia fluxu ezkutuetan dira. Hau da, ZIM biotikoa lortzeko prozesuan aldatu egiten den materia. Biomazaren bertako erazketari dagozkion fluxu ezkutu mota bi bereiz daitezke: higadura, batetik, eta itsasoko arrantzan arbuiaututako arrainak, bestetik.

Un segundo flujo importante de entrada de biomasa fue la extracción de productos forestales. La selvicultura (madera y leña) obtuvo el 35,61% (1,50 Mt) del total de materia biótica doméstica y Otros Productos Forestales (OPF) –principalmente siega y pasto de prados naturales, pastizales, etc.– el 25,97% (1,09 Mt).

Por último la pesca marítima (1,53%), apicultura (0,007%), caza (0,004%) y pesca fluvial (0,001%) completaron la extracción doméstica de biomasa.

En cuanto a la evolución temporal del IMD doméstico biótico entre 1985 y 1998 (Figura 4), destacar el incremento continuo que ha experimentado desde 1991 debido al aumento de la producción forestal (selvicultura y otros productos forestales). Comparando las cifras de los años 1985 y 1998 se pueden observar unos importantes incrementos en las categorías de otros productos forestales y selvicultura (104,24% y 53,08% respectivamente). También cabe señalar la disminución de la producción agrícola en un 13,95%. En conjunto, entre 1985 y 1998, el IMD biótico doméstico aumentó un 24,99% (0,84 Mt).

El segundo componente de la extracción doméstica de materia biótica son los flujos ocultos. Es decir, materia que es alterada como consecuencia del proceso de obtención del IMD biótico. Se pueden distinguir dos tipos flujos ocultos asociados a la extrac-

BMGn kontabilizatzen den higadura landare-biomasa erauzteko lanek (basogintzako lanek izan ezik) eragiten duten higadura da. Nekazaritzako lan batzuek lurra agerian geratzen delako, haizeen eta uraren mende. Higatze-prozesu horietan material-masa handiak lekuz mugitzen dira, lurra emankortasuna galtzen du, baliabide hidrikoak gazitu egiten dira, eutrofizazioa handitu, eta delta eta estuarioen hazkundera azkartu egiten da.

Arbuioak edo erreusak, gutxieneko neurrira edo neurri komertzialera iristen ez direlako –edo balio ekonomiko txikia edo hutsa dutelako–, baztertu eta itsasora itzultzen diren arrainei egiten dio erreferentzia. Erreus horiek kalte ekonomikoak eragiten dituzte –etorkizuneko biomasa kaltetzen den neurrian– eta kate trofikoak aldatzen dute.

Lekuz aldatutako bolumenari dagokionez, higadura da bietan garrantzikoena. 1985-1998 bitartean, nekazaritzak eragindako higaduraren ondorioz, 4,52 Mt lur aldatu zen lekuz Euskal Autonomia Erkidegoan. Higadura, baina, ez zen berdina izan Lurralde Historiko guztietan: % 88,2 Araban, % 7 Bizkaian eta % 4,8 Gipuzkoan.

Hiru lurraldeen arteko aldea hain handia izateko arrazoi bat baino gehiago dago. Batetik, Arabako laborantzaren higadura-ratioak Bizkaia eta Gipuzkoakoak baino handiagoak dira. Gainera, higadura-

ción doméstica de biomasa: la erosión y los descartes de la pesca marítima.


La erosión que se contabiliza en el NTM es aquella que tiene lugar como consecuencia de las labores de extracción de biomasa vegetal (excepto selvicultura). Ciertas actividades agrícolas favorecen la erosión debido a la vulnerabilidad del suelo cultivado ante la exposición al viento y al agua. Estos procesos de erosión conllevan desplazamientos de masas ingentes de material, merman la fertilidad del suelo, incrementan la salinización de los recursos hídricos, favorecen la eutrofización y provocan una aceleración en el crecimiento de deltas y estuarios.

Los descartes hacen referencia a la devolución al mar de capturas que no alcanzan las tallas comerciales o permitidas, y/o de capturas de especies no deseadas por su escaso o nulo valor económico. Estos descartes provocan pérdidas económicas en términos de biomasa futura y alteraciones en la cadena trófica.

Atendiendo al volumen de material desplazado, la erosión es el más importante de los dos. Entre 1985 y 1998, se ha estimado que como consecuencia de la erosión debida a la agricultura se desplazaron en la Comunidad Autónoma del País Vasco 4,52 Mt de suelo al año, distribuidas entre los tres Territorios Históricos de la siguiente forma: 88,2% en Araba, 7% en Bizkaia y 4,8% en Gipuzkoa (Figura 5).

5. irudia: 1985-1998. Laborantzak eragindako higaduraren lurraldez lurraldeko banaketa

Figura 5: 1985-1998. Distribución territorial de la erosión debida a la agricultura



2. taula: 1985-1998. Nekazaritzarako erabilitako eremuaren eta higadura-ratioen batez besteko banaketa

Tabla 2: 1995-1998. Distribución media de la superficie de uso agrícola y ratios de erosión

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Eremua Superficie	Ratioa Ratio	Eremua Superficie	Ratioa Ratio	Eremua Superficie	Ratioa Ratio
<i>Eremu lehorreko laborantza (landare belarkarak)</i> Cultivos herbáceos de secano	59.015,6	36,523	8.792,4	14,360	4.590,8	14,360
<i>Zuhaitzen eta eremu lehorreko mahastien laborantza</i> Cultivos arbóreos y viñedos de secano	10.697,9	34,435	453,7	13,419	436,5	13,419
<i>Larre iraunkorrak</i> Pastizales permanentes	39.681,2	10,336	45.601,5	0,297	42.436,6	0,297
<i>Eremu ureztatua</i> Cultivos de regadío	6.677,4	4,441	335	0,393	90	0,393

Nekazaritzarako erabilitako eremua hektareatan, eta higadura-ratioak tonatan hektarea eta urte bakoitzeko. Superficie de uso agrícola en hectáreas y ratios de erosión en toneladas por hectárea y año.

prozesua errazten duen laborantza-motarako –eremu lehorretarako landare belarkarak eta mahastiak– erabilitako lur-eremua askoz handiagoa da Araban. 2. taulan, nekazaritzarako erabilitako eremu nagusien batez besteko banaketa azaltzen da. Sortzen duten higaduraren arabera dago eginda banaketa.

1985-1998 bitarteko higaduraren bilakaerari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan % 14,62 gutxitu da lekuz aldatutako material-kantitatea. Higadura gutxitu izana eremu lehorreko landare belarkaretarako lur-sail gutxiago erabili izanaren ondorio zuzena da.

Espazio-banaketaren mapan higadura-gune nagusien kokapena ikus daiteke (6. irudia). Higadura-gune gehienak Arabako Lautadan, Arabako Haranetan eta Arabako Errioxan daude, lehorreko eremuko landare belarkaretarako eta mahastietarako hektarea-pila bat erabiltzen den lekuetan alegia.

4.1.2. Bertako materia abiotikoaren eta materia horri lotutako fluxu ezkutuen erauzketa.

Meatzaritza eta gehiegizko karga edo gainkarga

Mineral metalikoak, ez-metalikoak, energetikoak eta harrobiko gaiak erauztean ateratzen den materiala da bertako ZIM abiotikoaren osagai nagusia. Mineral

La gran diferencia en la erosión entre los tres Territorios se debe a dos motivos. Por una parte los ratios de erosión por tipo de cultivo en Araba son superiores a los de Bizkaia y Gipuzkoa. Adicionalmente, la superficie dedicada a cultivos que favorecen los procesos erosivos (herbáceos de secano y viñedos) es mucho mayor en Araba. En la tabla 2 se muestra la distribución media de las principales superficies de uso agrícola en función de la erosión que provocan.

En lo que respecta a la evolución de la erosión entre 1985 y 1998, se ha observado una disminución del 14,62% en el total de material desplazado en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este buen comportamiento de la erosión es una consecuencia directa de la disminución de la superficie dedicada a los cultivos herbáceos de secano.

En el mapa de distribución espacial se puede apreciar la localización geográfica de los principales focos de erosión (Figura 6). La mayor parte de la erosión se localiza en las zonas de la Llanada Alavesa, Valles Alaveses y Rioja Alavesa como consecuencia del gran número de hectáreas de cultivos herbáceos de secano y de viñedos de estas zonas.


4.1.2. Extracción doméstica de materia abiótica y flujos ocultos asociados.

Minería y sobrecarga

El material procedente de la extracción de minerales metálicos, no metálicos, energéticos y productos de cantera es el principal componente del IMD domés-


6. irudia: 1996. Laborantzak eragindako higaduraren banaketa geografikoaren mapa

Figura 6: 1996. Mapa de distribución espacial de la erosión provocada por la agricultura



7. irudia: Meatzaritza-lanetan sortutako ZIM

Figura 7: IMD procedente de la actividad minera



metalikoen kasuan, zuzeneko input materiala meaz eta hondakinaz osatua dagoela esaten da.

1985-1998 bitartean, bertako mea-erazketa % 37,16 gehitu zen: 11,68 Mt-tik 16,02 Mt-ra (7. irudia). Hazkuntza horren parterik handiena kareharriaren erazketa-industriari dagokio, kareharri-produkzioa 8,32 Mt-tik 12,7 Mt-ra handitu baitzen 1985 eta 1998 bitartean.

Garai hartan, bestalde, bertan behera utzi zen gas natural eta burdin hobien ustiaketa.

Meatzaritzan, ZIM lortzeko lekuz aldatu behar den material-kantitateari esaten zaio fluxu ezkutua. Mea dagoen lekuraino iristeko, hobiaren gaineko karga lekuz aldatu behar izaten da. Gainkarga hori ez da erabiltzen; aitzitik, meatokien ondoko zabortegean uzten da, hondakin gisa. Horrek oso ondorio kaltegarriak izan ditzake ingurumenerako: fauna eta flora hondatu, higadura areagotu, ibilguak aldarazi, lixibiazioa eragin, paisaia aldatu, etab. Gainkarga, beraz, zenbatu beharra dagoen material-fluxu bat da.

Gas naturalaren erazketa kontuan hartu beharreko bi fluxu-mota ezkutu ditu. Batetik, hondeaketa-lanaren hondakinak, eta, bestetik, erretako, edota, berriro txertatutako, gas-kantitatea.

1985-1998 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko meatzaritzaz-jarduerari lotutako fluxu ezkutuak 2,81 Mt izatetik 1,69 Mt izatera pasatu ziren (8. irudia). Murrizketa hori estuki lotua dago burdina erazteko jarduera bertan behera utzi izanarekin; izan ere, burdinaren erazketaren fluxu ezkutuak 1,38 tonakoak

metaloen kasuan, zuzeneko input materiala meaz eta hondakinaz osatua dagoela esaten da.

Entre 1985 y 1998 la extracción doméstica de minerales aumentó un 37,16%, pasando de 11,68 Mt en 1985 a 16,02 Mt en 1998 (Figura 7). La mayor parte de este incremento se debe a la industria extractiva de caliza que aumentó su producción de 8,32 Mt en 1985 a 12,7 Mt en 1998.

Cabe destacar en este período el abandono de la explotación de los yacimientos de hierro y gas natural.


Los flujos ocultos en la minería son la cantidad de material que hay que desplazar para obtener el IMD. Normalmente, para acceder a un yacimiento de minerales hay que desplazar la sobrecarga que se encuentra sobre el mismo. Esta sobrecarga no suele ser utilizada y queda depositada como residuo en las escombreras próximas a las minas. En términos ambientales, puede tener efectos perjudiciales, provocando daños en la fauna y la flora, erosión, cambios en los cursos de agua, lixiviación, alteraciones paisajísticas, etc. La sobrecarga es por tanto un flujo de materiales que debe ser contabilizado.

La extracción de gas natural tiene dos tipos de flujos ocultos que hay que tener en cuenta. Por un parte se encuentran los residuos de perforación, y por otra la cantidad de gas quemada y/o reinyectada.

Entre 1985 y 1998, los flujos ocultos asociados a la actividad minera de la Comunidad Autónoma del País Vasco disminuyeron de 2,81 Mt a 1,69 Mt (Figura 8).

8. irudia: Meatzaritzari lotutako fluxu ezkutuak

Figura 8: Flujos ocultos asociados a la minería



ziren erabilitako tona mea bakoitzeko. Burdinaren erauzketaren fluxu ezkutak, beraz, kareharriarenak -0,085 tona materia erabili gabea erabilitako tona bakoitzeko- baino askoz handiagoak dira.

Hondeaketa

Azpiegiturek eta eraikinak eraikitzeko hondeaketa-lana da bertako material- fluxuaren eragile handienetakoa bat. Hauek dira lurra lekuz mugitzean gertatzen diren ingurumen-arazo nagusiak: zarata, hautsak, zatikiak eta hondakinak (olioak) sortzea, energia-kontsumoa handitzea, landaredian kalteak izatea, lurra trinkotzea, zabortegiak sortzea, paisaia eraldatzea, arkeologia-ondasunak hondatzea, berezko drainatzea aldatzea eta hesi-efektua sortzea.

Hondeaketatik ateratako materiala bi multzotan sailka daiteke: ZIMak, batetik, eta fluxu ezkutak, bestetik. Lehenak betelana, ezpondak eta abar egiteko erabiltzen diren materialak dira. Bigarrenak, hondakin-degi eta zabortegietan utzitako materialak. 1985 eta 1998 bitartean, hondeaketatik ateratako materialaren % 40 erabili zen; gainerako % 60 zabortegira bota zen.

1998. urtean, eraikinak eta azpiegiturek eraikitzeko egindako hondeaketa-lanetan 9,58 Mt material atera zen. 1985 eta 1998 bitartean kopuru hori % 75,50 gehitu zen, eraikuntza-sektorearen jardura -bai eraikinen arloan bai azpiegituren arloan- handitu

Este hecho está estrechamente ligado al cese en la extracción de hierro, que tenía unos flujos ocultos de 1,38 toneladas por tonelada de mineral usado. Esta cifra es muy superior a la de la caliza (principal componente de la extracción minera) que tiene unos flujos ocultos asociados de 0,085 toneladas de materia no usada por tonelada de materia usada.


Excavación

La excavación para la construcción de infraestructuras y edificios constituye uno de los mayores flujos domésticos de materiales. Los principales aspectos medioambientales relacionados con los movimientos de tierras son: producción de ruido, emisión de polvo y partículas, generación de residuos (aceites), elevado consumo de energía, daños a la vegetación y compactación del terreno, vertederos, impacto paisajístico, afecciones al patrimonio arqueológico, alteración del drenaje natural y efecto barrera.

Podemos clasificar el material excavado en IMD y flujos ocultos. El primero se refiere al material excavado que es utilizado para rellenos, formación de terraplenes, etc. Los segundos serían los materiales que son depositados en vertederos y escombreras. Entre 1985 y 1998 se utilizó en promedio un 40 % del material excavado, mientras que el 60 % restante fue a parar a escombreras (Figura 9).

En el año 1998 la excavación para la construcción de edificaciones e infraestructuras se elevaba a 9,58 Mt. Entre 1985 y 1998 la excavación aumentó un 75,70%. Este hecho fue consecuencia directa del

9. irudia: Hondeaketa
Figura 9: Excavación



izanaren ondorioz. 1990-1994 bitarteko urteetan, Gipuzkoa eta Bizkaiko errepide-sarean egindako inbertsio handiaren ondorioz, 12 Mt material baino gehiago atera zen hondeaketa-lanetik.

Dragatze-lanak

Inolako baliabideren erauzketari loturik ez badaude ere, itsas garraiorako azpiegiturak eraikitzeko eta portu eta ibaietako sakonerari eusteko lanetan beharrezkoak diren material-fluxua dira dragatze-lanak. Hortaz, lan honetan Bilboko eta Pasaiaiko portuetako dragatze-lanak kontabilizatu dira, bi portu horiek baitira material-fluxu horien iturri nagusiak. Dragatutako materiala fluxu ezkututzat hartzen da, ekonomiatik kanpo geratu ohi baita.

Dragatze-lan horiek ondorio negatiboak dituzte itsas ingurumenean: gai poluitzaileak isurtzen dira, kate trofikoak hondatzen (itsas hondoko bentosean batez ere), ibaiak gazitzen, etab.

10. irudian 1985-1998 bitarteko dragatze-lanetan lekuz aldatutako material-bolumenaren bilakaera ikus daiteke. 1985 eta 1993 bitarteko dragatze-lanetan tona bat material baino gehiago ateratzen bazen ere, 1994. urtetik aurrera erdia baino gutxiago dragatu zen. Izan ere, 1985 eta 1993 bitartean zabal-tze-lanak egin ziren Bilboko portuan (Lucero punta-ko dikea eta zenbait morru eta kai eraiki ziren), eta material-kopuru handiak atera ziren orduan.

aumento en la actividad del sector construcción, tanto en lo que se refiere a edificaciones como a infraestructuras. Durante el período 1990-1994, y debido a la fuerte inversión en carreteras en Gipuzkoa y Bizkaia, la excavación se situó por encima de 12 Mt.

Dragado


Las actividades de dragado constituyen un flujo de materiales, que a pesar de no estar ligado a la extracción de ningún recurso, es necesario en la construcción de infraestructuras de transporte marítimo y para el mantenimiento del calado de puertos y cursos fluviales. En este sentido se han contabilizado las labores de dragado de los puertos de Bilbao y Pasajes, como principales fuentes de estos flujos de materiales. El material dragado suele considerarse como un flujo oculto, pues normalmente se queda fuera de la economía.

Estas actividades de dragado, suelen ocasionar efectos negativos en el medio ambiente marino causando liberación de sustancias contaminantes, impactos negativos en las cadenas tróficas (sobretudo en el bentos marino), salinización de cursos fluviales, etc.

En la figura 10 se puede observar la evolución del volumen de material desplazado en las operaciones de dragado en el período 1985-1998. Mientras que entre 1985 y 1993 se superó la cifra de 1 Mt de material dragado, a partir de 1994 se dragó menos de la mitad. Esta circunstancia se debe a que entre 1985 y 1993 se llevaron a cabo varias de obras ampliación en el puerto de Bilbao que requerían del dragado de ingentes cantidades de materiales (construcción del dique de punta Lucero y de varios espigones y muelles).

10. irudia: Dragatze-lanak

Figura 10: Dragado



4.1.3. Bertako Beharrezko Material Guztia


1998an, bertako BMG 17,20 tonakoa zen biztanle bakoitzeko. 1985etik 1998ra, baliabideen bertako erauzketa % 21,05 gehitu da, 29,91 Mt izatetik 36,21 Mt izatera iragan da, alegia. 1989 eta 1994 bitartean, BMGren kopuruak nabarmen egin zuen gora, materia abiotiko gehiago atera baitzen, hondalantetatik batez ere (11. irudia).

4.1.3. Necesidad Total de Materiales domésticos

En 1998 la NTM domésticos era de 17,20 toneladas per cápita. Desde 1985 a 1998 la extracción doméstica de recursos ha aumentado un 21,05%, pasando de 29,91 Mt en 1985 a 36,21 Mt en 1998. Entre 1989 y 1994 la NTM experimentó una fuerte subida provocada por un aumento en la extracción de materia abiótica, principalmente excavación (Figura 11).


11. irudia: Bertako ZIM eta fluxu ezkutuak

Figura 11: IMD y flujos ocultos domésticos



12. irudia: Bertako BMG

Figura 12: NTM domésticos



3. taula: 1985 eta 1998. Bertako BMGren osagaiak

Tabla 3: 1985 y 1998. Composición de la NTM domésticos

	1985		1998		Aldea / Variación 1985-1998	
	Mt	%	Mt	%	Mt	%
<i>Ez-metalikoak</i> No metálicos	10,41	34,80	16,02	44,24	5,61	53,89
<i>Higadura</i> Erosión	5,27	17,62	4,50	12,43	-0,77	-14,61
<i>Biomasa</i> Biomasa	3,37	11,27	4,21	11,63	0,84	24,93
<i>FE Hondeaketa</i> FO excavación	3,21	10,73	5,99	16,54	2,78	86,60
<i>FE Meatzaritza</i> FO minería	2,81	9,39	1,69	4,67	-1,12	-39,86
<i>ZIM Hondeaketa</i> IMD excavación	2,24	7,49	3,59	9,91	1,35	60,27
<i>Dragatua</i> Dragado	1,31	4,38	0,18	0,50	-1,13	-86,26
<i>Metalikoak</i> Metálicos	1,27	4,25	0,00	0,00	-1,27	-100
<i>Arbuioak</i> Descartes	0,01	0,03	0,02	0,06	0,01	100
<i>Energetikoak</i> Energéticos	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Zuzeneko input materiala Input material directo	17,29	57,81	23,83	65,81	6,54	37,83
Fluxu ezkutua Flujos ocultos	12,62	42,19	12,38	34,19	-0,24	-1,90
Bertako BMG NTM domésticos	29,91		36,21		6,30	21,06

Hauak dira bertako BMGk izan duen bilakaeraren gertaerarik aipagarrienak (12. irudia eta 3. taula):


- ZIMren kopurua, bertako BMGren osagai gisa, handituz joan da, bai kopuru absolutuetan (17,29 Mt-tik 23,83 Mt-ra) bai erlatiboetan (% 57,81etik % 65,81era), honako arrazoi hauengatik:
 - Gero eta biomasa gehiago erauzi delako (basogintza eta basoko beste produktu batzuk).
 - Gero eta kareharri gehiago erauzi delako.
- Fluxu ezkutuen kopurua, berriz, gutxituz joan da, bai kopuru absolutuetan (12,62 Mt-tik 12,38 Mt-ra) bai kopuru erlatiboetan (% 42,19tik % 34,19ra), honako arrazoi hauengatik.
 - Higadura murriztu egin delako Arabako eremu lehorreko laborantzak atzera egitean.

Los hechos más significativos en la evolución de la NTM domésticos han sido (Figura 12 y Tabla 3):

- Aumento de la participación del IMD en la composición de la NTM domésticos, tanto en términos absolutos (de 17,29 Mt a 23,83 Mt) como relativos (del 57,81% al 65,81 %), debido al:
 - Incremento en la extracción de biomasa (selvicultura y otros productos forestales).
 - Incremento en la extracción de caliza.
- Disminución de los flujos ocultos en términos absolutos (de 12,62 Mt a 12,38 Mt) y relativos (del 42,19% al 34,19 %), producto de:
 - Una reducción en la erosión como consecuencia del retroceso de los cultivos herbáceos de secano en Araba.

13. irudia: EE-15 eta Euskal Autonomia Erkidegoko bertako BMG eta BPG 1995. urtean

Figura 13: NTM domésticos y PIB de la UE-15 y de la Comunidad Autónoma del País Vasco en 1995



Iturria: Wuppertal Institutua eta egilen beri.
Fuente: Instituto Wuppertal y elaboración propia.

- Mineral metalikoen erazketak eragindako fluxu ezkutatuak desagertu egin direlako.
- Bilboko portuan material gutxiago dragatu delako.

13. irudian ikus daitekeenez, ez dago korrelaziorik baliabideen bertako erazketaren eta BPGren artean. Herrialde batzuek, bertako baliabideen kopurua bera izanik, beste batzuek baino askoz aberastasun handiagoa sortzen dute, BPG askoz handiagoa dute. Halaxe gertatzen da, adibidez, Herbehereak, Belgika eta Luxenburgo, Danimarka edo Austriaren kasuetan. Euskal Autonomia Erkidegoan baliabideen bertako erazketa ez da oso handia, ez eta BPG ere. 1995ean, bertako material-produkzioa 733 € ingurukoa zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean erazitako material tona bakoitzeko. Kopuru hori Europako Erkidegokoa (568 € tona bakoitzeko) baino handiagoa da, Suediakoa (507 € tona bakoitzeko) baino handiagoa, edota Alemaniakoa (460 € tona bakoitzeko) baino handiagoa. Bestalde, bada herrialde-talde bat, Belgika eta Luxenburgo (1.300 € tona bakoitzeko) eta Herbehereak (1.207 € tona bakoitzeko) tartean, Euskal Autonomia Erkidegoak baino askoz bertako material-produkzio handiagoa duena.


Euskal Autonomia Erkidegoak, beste herri txiki batzuek bezala (Belgika eta Luxenburgo), inportazio handiak eginez kitatzen du bertako erazketaren txikia. Hori dela eta, kanpoko baliabideen eskakizunak kontuan harturik osatu beharra dago azterketa hau.

- La desaparición de los flujos ocultos asociados a la extracción de minerales metálicos.
- La disminución del material dragado en el puerto de Bilbao.

Observando la figura 13, vemos que no existe correlación alguna entre la extracción doméstica de recursos y el PIB. Hay países que con la misma cantidad de recursos domésticos obtienen una riqueza, en términos de PIB, muy superior a la que obtienen otros. Este es el caso de Holanda, Bélgica y Luxemburgo, Dinamarca o Austria. La Comunidad Autónoma del País Vasco se encuentra en una situación en la que la extracción doméstica de recursos no es muy alta y su PIB tampoco. La productividad material doméstica era en 1995 del orden de los 733 € por tonelada de materia extraída en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Esta cifra es notablemente superior a la de la Unión Europea (568 € por tonelada), Suecia (507 € por tonelada) o Alemania (460 € por tonelada). Por otra parte, hay un grupo de países liderados por Bélgica y Luxemburgo (1.300 € por tonelada) y Holanda (1.207 € por tonelada) que muestran una productividad material doméstica muy superior a la de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al igual que otros países pequeños como Bélgica y Luxemburgo, compensa su escasa extracción doméstica de recursos con unas importaciones muy elevadas. Es por esto que hay que complementar nuestro análisis considerando los requerimientos de recursos exteriores.

14. irudia: Kanpotik ekarritako ZIMren osagaiak
Figura 14: Composición del IMD procedente del exterior



4.2. KANPOKO BALIABIDE-BEHARRAK

Kanpoko baliabide-eskakizunen artean Euskal Autonomia Erkidegoak munduko beste herrialde batzuetatik eta estatuko beste leku batzuetatik bere beharrak asetzeko inportatutako materialak eta inportazio horiei lotutako fluxu ezkutak sartzen dira.

4.2.1. Kanpoko zuzeneko input materiala

1998an, kanpotik iritsitako ZIM 15,12 tonakoa zen biztanle bakoitzeko, 1989. urtean baino 0,63 tona gehiago biztanle bakoitzeko; hau da, kopurua % 4,33 handitu zen. Kopuru absolutuetan, denbora-bitarte horretan, kanpoko ZIM 1,16 Mt handitu zen (% 3,80). ZIMren hazkunde-tasan alde hori egoteak badu bere arrazoia, 1998. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan biztanle gutxiago izatea alegia. Material-motaren arabera, biomasak, mineral metalikoen, mineral ez-metalikoen eta beste batzuek gora egin zuten; aitzitik, erregai fosilek behera egin zuten (14. irudia).

Kanpotik iristen diren material-fluxuen osagai nagusia erregai fosila da. Nahiz eta 1989. urteaz geroztik erregai fosilen inportazioak behera egin duen (% 18,72 gutxitu dira), 1998. urtean erregai fosilak inportazio guztien (31,81 Mt) % 30,40 (10,95 Mt) ziren oraindik. Erregai fosilen artean, petrolioaren olio gordina eta petrolio-olioa inportatzen dira gehienbat. Erregai fosilen inportazio-bolumen handi

4.2. REQUERIMIENTOS DE RECURSOS EXTERIORES

Los requerimientos de recursos exteriores incluyen aquellos materiales importados por la Comunidad Autónoma del País Vasco del resto del mundo y del resto del estado para satisfacer sus necesidades materiales, así como los flujos ocultos asociados a estas importaciones.

4.2.1. Input material directo exterior

En 1998, el IMD procedente del exterior era de 15,12 toneladas per cápita, 0,63 toneladas per cápita más que en el año 1989; es decir, aumentó un 4,33%. En términos absolutos, el IMD exterior aumentó en dicho período en 1,16 Mt (3,80%). Esta diferencia en la tasa de crecimiento del IMD se debe a la menor población existente en la Comunidad Autónoma del País Vasco en el año 1998. Por tipos de materiales, biomasa, minerales metálicos, minerales no metálicos y otros aumentaron; por el contrario, los combustibles fósiles fueron los únicos que disminuyeron (Figura 14).

El principal componente de los flujos de materiales usados procedentes del exterior es el de los combustibles fósiles. A pesar de que desde 1989 han disminuido las importaciones de combustibles fósiles en un 18,72%, en el año 1998 todavía suponían un 34,40% (10,95 Mt) del total de importaciones (31,81 Mt). Dentro de los combustibles fósiles des-

horrek zerikusi handia du industria petrokimikoaren jarduerarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko energia-mendekotasunarekin. Aztertutako denbora-bitarteari dagokionez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko metalaren industriaren egituraketa produktiboan egindako aldaketarekin batera, inportazioen beherakada da gauzarik aipagarriena (1,57 Mt 1989an, 0,30 Mt 1998an). Ingurumenaren ikuspegitik begiratuta, berriz, gauza bat da bereziki aipagarria, erregai fosilen fluxuak egin duen beherakada handia alegia, erregai fosilak baitira lurraren berotze globalaren eta euri azidoaren eragile nagusietako batzuk.

Inportazioetan pisu gehien hartzen duen hurrengo material-fluxua mineral metalikoena da (% 29,39). Fluxu horrek kopuru absolutuetan egin du gora: 8,54 Mt-tik (1989) 9,35 Mt-ra (1998). Inportatutako material metalikoen osagaien prozesamendu-maila handiagoa da gaur egun duela urte batzuk baino: produktu erdilanduen eta burututako produktuen inportazioek gora egin dute, lehengaien kaltean. Aldaketa horiek zerikusi handia dute euskal metalgintzaren industriak berak izan dituen aldaketekin (Bizkaiko Labegaraiak ixtearekin eta Bizkaiko Altzairutegi Trinkoa sortzearekin, adibidez).


Materia biotikoaren inportazioek ia aldaketarik gabe eutsi diote (4,50 Mt inguru): 1998an, Euskal Autonomia Erkidegoan inportatutako material-kopuru osoaren % 14,16 materia biotikoa zen.

tacan las importaciones de aceites crudos de petróleo y aceites de petróleo. El elevado volumen de importación de combustibles fósiles está estrechamente ligado a la actividad de la industria petroquímica y a la dependencia energética de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En el período de estudio y en relación con el cambio en la estructura productiva de la industria del metal de la Comunidad Autónoma del País Vasco, destaca la reducción en las importaciones de hulla (de 1,57 Mt en 1989 a 0,30 Mt en 1998). Desde la óptica ambiental, hay que señalar la importancia de la disminución en el flujo de combustibles fósiles, pues son una de las principales causas del calentamiento global de la tierra y de la lluvia ácida.

El siguiente flujo de materiales con mayor peso en las importaciones lo constituyen los minerales metálicos con un 29,39%. Este flujo ha aumentado en términos absolutos desde 8,45 Mt en 1989 a 9,35 Mt en 1998. La composición de las importaciones de materiales metálicos ha evolucionado hacia un mayor grado de procesamiento: han aumentado las importaciones de semimanufacturas y productos finales en detrimento de las materias primas. Estos cambios se encuentran estrechamente relacionados con las transformaciones sufridas por la industria metálica vasca (p. ej. el desmantelamiento de Altos Hornos de Vizcaya y la creación de la Acería Compacta de Bizkaia).

15. irudia: Kanpotik ekarritako ZIMren jatorria

Figura 15: Origen del IMD procedente del exterior



Aipamen berezia merezi du mineral ez-metalikoen fluxuak, 1989. urteaz geroztik 2,70 Mt hazi baita (% 156,94). Mineral ez-metalikoek kanpoko ZIMren % 5,61 izatetik % 13,88 izatera igaro dira azertzen ari garen denbora-bitarte horretan, 1989 eta 1998 bitartean alegia. Egoera hori sortu duen material-fluxu nagusia eraikuntzarako meen fluxua izan da.

Inportazioen jatorriari dagokionez, 1989an, inportatutako gaien % 68,76 munduko beste herrialde batzuetatik ekarrita barneratu ziren. 1998an, inportazio-kopurua % 60,06ra murriztu zen. Kopuru absolutuetan, estatuko beste herrialde batzuetatik ekarrita barneratutako inportazioak 3,13 Mt hazi dira (% 32,68), eta munduko beste herrialde batzuetatik ekarrita barneratutako inportazioak, berriz, 1,96 Mt gutxitu dira (hau da, % 9,32) (15. irudia).

4.2.2. Kanpoko zuzeneko input materialari lotutako fluxu ezkutak

Inportazioei lotutako fluxu ezkutuek aipatutako inportazio horiek lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko mugaz kanpo lekualdatu beharra dagoen materia-kopurua jasotzen dute. Kontabilizatu diren fluxu ezkutu nagusiak honako hauek dira: higadura (nekazaritzaren eta abeltzaintzaren ondoriozkoa), abere-produktu inportatuei lotutako elikagai-inputak, gainkarga eta zaborra (meatzaritzan), elektrizitate-inportazioei lotutako fluxu ezkutak, eta erreusa (arrantzan).

Fluxu ezkutu horiek kalkulatzeko, inportatutako ZIMren alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Osagaiak.
- Eraldaketa-maila (lehengai, produktu erdilandua, burututako produktua).
- Inportatutako materialaren jatorri geografikoa.
- Inportazioa egindako urtea.

Kopuruari dagokionez, 1998an, Euskal Autonomia Erkidegoaren inportazioek eragindako fluxu ezkutua 101,15 Mt-koa zen, 1989koa baino 8,28 Mt handiagoa (hau da, % 8,92) (16. irudia).

1998an, mineral metalikoen inportazioek sortu zituzten kanpoko fluxu ezkutuen % 57,88 (58,55 Mt). Material-fluxu hori % 44,22 handitu da 1989. urteaz geroztik, bi arrazoi nagusi hauengatik batez ere:

- Mineral metalikoen inportazioak gora egin duelako (0,90 Mt).
- Fluxu ezkutuen koefizienteek gora egin dutelako (1989an, tona bat material metaliko lortzeko, 4,81 tona material lekualdatzen zen kanpoan; 1998an,

Las importaciones de materia biótica se han mantenido prácticamente constantes en torno a las 4,50 Mt, suponiendo en 1998 un 14,16% del total de importaciones de materiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mención aparte requiere el flujo de minerales no metálicos, que desde 1989 ha aumentado en 2,70 Mt (156,94%). Los minerales no metálicos han pasado de suponer un 5,61% del IMD exterior en 1989 al 13,88% en 1998. El principal flujo de materiales que ha originado esta situación es el de los minerales para la construcción.

En lo que se refiere al origen de las importaciones, en 1989 el 68,76% tenían su origen en el resto del mundo. En 1998 esta cifra se redujo hasta el 60,06%. En términos absolutos, las importaciones procedentes del resto del estado han aumentado en 3,13 Mt (32,68%), mientras que las del resto del mundo han disminuido en 1,96 Mt (9,32%) (Figura 15).

4.2.2. Flujos ocultos asociados al input material directo exterior

Los flujos ocultos asociados a las importaciones recogen la cantidad de materia que es necesaria desplazar fuera de las fronteras de la Comunidad Autónoma del País Vasco para obtener dichas importaciones. Los principales flujos ocultos que se han contabilizado son la erosión (consecuencia de las actividades agrícolas y ganaderas), los inputs alimenticios asociados a los productos animales importados, la sobrecarga y la ganga (en minería), los flujos ocultos asociados a las importaciones de electricidad y los descartes (en la pesca).

Para el cálculo de estos flujos ocultos, se han tenido en cuenta los siguientes aspectos del IMD importado:

- Composición.
- Grado de procesamiento (materia prima, semimanufactura, producto final).
- Origen geográfico del material importado.
- Año en el que se realizó la importación.


En términos de masa, en 1998 los flujos ocultos provocados por las importaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco ascendían a 101,15 Mt, habiendo aumentado desde 1989 en 8,28 Mt (8,92%) (Figura 16).

En 1998, el 57,88% de los flujos ocultos provocados en el exterior (58,55 Mt) era consecuencia de las importaciones de minerales metálicos. Este flujo de materiales ha aumentado desde 1989 un 44,22 % por dos motivos:

- Aumento de la importación de minerales metálicos (0,90 Mt).

16. irudia: Importazioei lotutako fluxu ezkutuen osagaiak

Figura 16: Composición de los flujos ocultos asociados a las importaciones



berriz, lortutako material tona bakoitzeko 6,26 tona material lekualdatu zen. Inportatuko materialen prozesatze-maila handiagoak (burdingai gutxiago inportatzen da eta, aitzitik, burdina eta altzairu gehiago) eta fluxu ezkutuen ratio handiagoko metalen inportazioen gorakadak (eztainu gordina eta kobrea findua) eragin dute fluxu ezkutuen ratioen hazkunde hori.

Nekazaritzak eta abeltzaintzak sortu duten materialen inportazioari lotutako fluxu ezkutuetan 18,44 Mt-koak ziren 1998an. Kopuru hori 1989. urterako kontabilizatutakoa (22,57 Mt) baino % 18,30 txikiagoa da. Munduko herrialdeen soja-inportazioak eragiten zuen higadura gutxitu izana da beherakada horren eragile nagusia.

Inportatuko energia elektrikoa sortzeko behar den materia ere kanpoko fluxu ezkutuen artean kontabilizatu da. 1998an, fluxu ezkutu horiek 18,96 Mt ziren; 1989. urteaz geroztik % 12,15 handitu ziren. Elektrizitatearen inportazioaren gorakada horrek ingurumenaren gaineko eragina lekuz aldatzea dakar. Klima-aldaketaren gaineko efektu globalak bere horretan iraun badezake ere (produktzio eta kontsumo osoak bere horretan irauten badute), energia-baliabideak sortzearen zama herrialde esportatzaileak baizik ez du eramaten.

1989. urteaz geroztik portzentajearen gehien handitu diren fluxu ezkutuetan mineral ez-metalikoak sartuta-


